



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek atzera bota dabe Aldundiak, bosgarren edukiontzirik ez daukien udalerrietarako konpostaje aparatuen erosketa diruz laguntzeko proposamena

Bilbon, 2013ko azaroaren 4an.

Bizkaiko Batzarrak baztertu egin dau gaur goizean Aldundiak, bosgarren edukiontzia hartzen dauen ohiko sistematik kanpoko konpostajerako makinak erosketa diruz laguntzeko proposamena. Apirilaren 23ko 63/2013 Foru Dekretua onartu zanetik, Foru Aldundiak aukera hori eskintzen dau, baina beti edukiontzi marroia instatea eskatzen bada, holan materia organikoa batzeko eta Aldundiak Arraiz Mendian daukan konpostajerako zentroan tratetako. EH Bilduk aurkeztu dauen eta Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurugiroko Batzordean eztabaidatu dan ekimenak Socialistas Vascos (PSE-EE) taldearen aldeko botoa jaso dau. Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) eta Bizkaiko Popularrak (PP) taldeek proposamenaren kontrako botoa emon dabe.

Koalitzino abertzaleak, Arauz Besteko Proposamenaren bitartez, eskaerea egin deutso Aldundiari, Bizkaiko auzoetan eta herrietan auto-konpostajerako behar diran gailuak eskuratzeko diru-laguntzak “zabaltzeko”, eta “ez bakarrik” bosgarren edukiontzia eskatu daben herrietan, ganera, kontrolerako eta jarraipenerako neurriak ezarriz. Asier Vegak, EH Bilduko batzordekideak, adierazo dauenez, zabaltze horrek “onurak” ekarriko leukez hondakin organikoen plangintzaren ikuspuntutik, Bizkaiak hondakin horreen kudeaketa gastuak eta bolumena urritu egingo leukezalako.

EAJ-PNV-ko batzarretako taldeak gogoratu deutso Bilduri, igaz, Bizkaiko Hiri Hondakinen Plan Integralaren bigarren berrikuspina egin zanean, talde horrek “ez ebalu gai horregaz erlacionautako inolako ekarpenik egin”. Dokumentu horrek konpostajea errazteko aparatuek erosteko laguntzak batzen ditu. Batzarretako talde guztiek, koalitzino abertzaleak izan ezik, adostutako Foru plan horrek abonatu organikoaren kalitatea eta bosgarren edukiontzien bitartez horren erabilera egokia bermatzen ditu. Talde jeltzalearen eretziz, autokonpostajearen “etxez etxeko” kontrolak birziklapenaren kostuak igon egingo leukez.

PP taldea jeltzaleakaz bat etorri da, autokonpostajerako makinak erosteko diru laguntzak edukiontzi marroiaren ezarpenagaz lotuta joan behar dirala esatean. Gaur egun indarrean dagoan plana “ondo dabil funtzionetan”, eta ez dago eredu aldatzeko motiborik. Ez dira egin behar “merezidu ez daben eta beharrezkoak ez diran gastuak”. Hobekuntza “nabarmenik” ekarriko ez leukien “gastu gehiago” izango litzatekez, esan dau talde popularreko Arturo Aldecoak

ARBOLARTEKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak, Iosu Madariaga, Ingurumeneko foru diputatua, batzordearen aurrean agertzea eskatu dau, foru lurretan, Zugaztietan, dagoan eskultura



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

parkearen proiektuan 5 urte baino gehiagoz erantzukizun zibileko asegururik ez egotea, Meatzalde Goikoa Kultur Alkartegaz dagoan kontratua apurtzeko zergaitia ez izatea azaldu daian. Zerbitzu juridikoak esandakoa kontuan izanda, aldundiko arduradunak gogoratu dau kultur ekimen horren sustatzaileek 2012ko azarora arte asegururik kontratatu izana ez egiaztatzea “ez dala” foru lur “zabalean eta publikoan” 17 eskultura jarteko “baimena kentzeko errazoa”, Arbolarte parkeari jagokonez. Enpresak dagoaneko konpondu dauen “akatsa” da, erantzun dau.

Madariagak azpimarratu dauenez, “forma aldeko ez betete” horreek konpondu eta gero, Ingurumeneko Saitetik “ontasunaren eta interes publikoaren” jarraibidearen arabera jardun da. Ez da ahaztu behar proiektu hori, aire zabaleko museoaren aldetik “irabazi ekonomikorik jasoten ez dauen” alkarte batek sustatzen dauela. Parke “berezia” eta “positiboa” da Bizkaiarentzat, eta “jarduera ekonomikoa sortzen dau egoera txarrean dagoan leku batean, eta bizibarritzen laguntzen deutso leku horri”. Proiektu horren bokazino “argia”, euskal arte garaikiderako erreferentziatzko lekua izatea da, eta Nestor Basterretxeak orain denpora gitxi egin dauan ekarpenak helburu hori “finkatu egin dau”, azpimarratu dau.

PP taldeak, bere aldetik, eskulturen parkeak lehenengo bost urteetan ez dauela asegururik izan azpimarratu dau barriro be, inaugurau zonetik igazko azarora arte. Ganera, Arturo Aldecoak uste dau Aldundiak “baldintza guztiak betetan dituan” aseguru eskatu behar deusala enpresa sustatzaileari, gaur egungoak ez ditualako baldintza guztiak betetan. “Alkarteko kideak babesten ditu, jausten badira”, esan dau ironiaz. Kasu honetan, bere eretxiz, Foru Aldundiak, “parkearen erabiltzaileen interesak babesten ez dituan” tratua emon deutso enpresari. Sustatzaileen esanetan, parkeak “70.000” erabiltzaile ditu urtean. Aldundiari inplikazino gehiago eskatu deutso, Arbolarte sustatzen dauen alkarteak, datorren azaroaren 15ean amaituko dan aseguru “hobetu daian”.

MALATO ARBOLEA

Horrez gain, Batzordeak PP taldearen Arauz Besteko Proposamena baztertu dau. Bertan, Aldundiari “interesa erakusteko” eskatzen jakon, Eusko Jaurlaritzak, Malato Arbolea zuhaitz “berezi” moduan babesteko aukerea “aztertu” daian. Garai haretako kronikek esaten dabenez, 1603an desagertu zan, Bizkaiko jaunak alkartzeko lekua zan, eta Bizkaiko Jaurerriaren mugak marketan ebazan. Arbola horrek hartzen eban lekuan Gernikako arbolaren bost kimu landatu ziran, eta harrizko kurutze bat eta monolito bat jarri ziran. Ganerako taldeen eretxiz, hori nahikoa da arbola horrek Bizkaiarentzat izan eban esanahi historikoa gogoratzeko, Luiandon, Arabako lurralde historikoan, dagoan arren. EAJ-PNV, Bildu eta PSE-EE taldeek, orain 410 urte desagertu zanez gaur egun “existiduten ez dan” zuhaitz bat babestu beharra baztertu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales rechazan que la Diputación tenga que subvencionar la compra de aparatos para el compostaje a municipios sin quinto contenedor

En Bilbao, a 4 de noviembre de 2013.

El Parlamento de Bizkaia ha rechazado esta mañana que la Diputación tenga que subvencionar la adquisición de maquinaria de compostaje fuera del sistema habitual de recogida implantado con el quinto contenedor. Desde la aprobación del Decreto Foral 63/2013 de 23 de abril, la Institución foral ofrece esa posibilidad pero siempre y cuando se solicite la instalación del contenedor marrón que permite a las localidades que lo deseen recoger materia orgánica para su tratamiento posterior en la planta de compostaje de la Diputación ubicada en el Monte Arraiz. La iniciativa planteada por EH Bildu, debatida hoy en la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales, solamente ha recibido el apoyo del grupo Socialistas Vascos (PSE-EE). Nacionalistas Vascos (PNV) y Populares Vizcaínos (PP) han rechazado tal posibilidad.

Concretamente, la coalición abertzale pretendía a través de una Proposición No de Norma, instar a la Diputación a “ampliar” las subvenciones destinadas a dispositivos necesarios para el autocompostaje en barrios y pueblos de Bizkaia, y “no sólo” en los municipios que han solicitado el quinto contenedor, estableciendo además medidas de control y seguimiento. El apoderado Asier Vega, de EH Bildu, ha asegurado que esta ampliación supondría “beneficios” desde el punto de vista de la planificación de los residuos orgánicos, ya que Bizkaia reduciría los gastos de gestión y el volumen de estos residuos.

El grupo juntero del PNV ha recordado a Bildu que cuando se realizó el año pasado la segunda revisión del Plan Integral de Residuos Sólidos Urbanos de Bizkaia, documento en el que se recogen las ayudas para la compra de aparatos que facilitan el compostaje, esta formación política “no hizo ninguna aportación” en este sentido. Este plan foral, acordado por todos los grupos junteros a excepción de la coalición abertzale, garantiza la calidad del abono orgánico y el buen uso del mismo por medio del quinto contenedor. La formación jeltzale considera que el control “casa por casa” del autocompostaje aumentaría los costes del reciclaje.

El PP ha coincidido con los nacionalistas en que las ayudas a la compra de maquinaria para el autocompostaje debe ir unido a la implantación del contenedor marrón. El plan actual “está funcionando bien” y no hay motivo para cambiar de modelo. No hay que “incurrir en gastos innecesarios que no compensen”. “Serían más gastos”, sin una mejora “sustancial”, ha mantenido Arturo Aldecoa, juntero del grupo popular.

SEGURO DE RESPONSABILIDAD CIVIL DE ARBOLARTE



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por otra parte, el PP solicitaba en comisión la presencia del diputado foral de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, para explicar el criterio foral por el que no se considera causa de resolución contractual con Meatzalde Goikoa Kultur Elkartea, la inexistencia de un seguro de responsabilidad civil durante más de 5 años por el proyecto de parque de esculturas de La Arbolada en terrenos forales. Siguiendo indicaciones de su servicio jurídico, el responsable foral ha recordado que la no acreditación de un seguro hasta noviembre de 2012 por parte de los promotores de esta iniciativa cultural, “no constituye causa de resolución de la autorización” para la colocación de 17 esculturas en un terreno foral “abierto y público”, en lo que constituye el parque Arbolarte. Es un “defecto” que la empresa subsanó, ha respondido.

Madariaga ha recalcado que, resueltos estos “incumplimientos formales”, desde el Departamento de Medio Ambiente se ha actuado con la premisa de la “bondad e interés público” de un proyecto promovido por una asociación a la que el museo al aire libre “no reporta beneficios económicos”. Es un parque “singular” y “positivo” para Bizkaia que “genera actividad económica en una zona deprimida y contribuye a su revitalización”. Un proyecto que “claramente” tiene vocación de ser un espacio de referencia para el arte contemporáneo vasco que “ha quedado consagrado” con la reciente aportación de Néstor Basterretxea, ha sostenido.

Por contra, el PP ha insistido en que el parque de esculturas no ha tenido seguro en sus cinco primeros años de existencia, desde que se inauguró en 2007 y hasta noviembre del pasado año. Además, su apoderado Arturo Aldecoa cree que la Diputación tendría que exigir a la empresa promotora un seguro “en condiciones” ya que el actual es insuficiente. “Cubre a los miembros de la asociación por si se caen”, ha ironizado. En este caso, cree que la institución foral ha ofrecido a esta empresa un trato que “no favorece a los intereses de los usuarios del parque”, “70.000” al año, según los propios promotores. Ha invitado a la Diputación a implicarse para que la asociación promotora de Arbolarte “mejore” un seguro que expira el próximo 15 de noviembre, según él.

ÁRBOL MALATO

Asimismo, la Comisión ha rechazado una Proposición No de Norma del PP en la que solicitaba a la Diputación “interesarse” para que el Gobierno Vasco “estudie” la protección como árbol “singular” del Árbol Malato, desaparecido en 1603 según las crónicas de la época, que servía de lugar de reunión de los señores de Bizkaia y que marcaba los límites del Señorío. En el sitio que ocupaba, se plantaron cinco retoños del árbol de Gernika, una cruz de piedra y un monolito en su recuerdo, algo que para el resto de grupos junteros resulta ya suficiente para recordar la significación histórica del árbol para Bizkaia aunque se encuentre en Luyando, territorio alavés. PNV, Bildu y PSE-EE han rechazado tal protección porque el árbol que “no existe”. Desapareció hace 410 años.